

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure negozio ereduak funtziona dezan, oso garrantzitsua da hornitzaile eta bazkide sare bat izatea. Garrantzitsua da beste enpresa batzuekin aliantzak sortzea; izan ere, baliabideak modu erosoan eskuratu eta arriskuak murrizteko aukera ematen digu. Adibidez, baliabideak eskuratzeko arrazoak dauden egoeretan arriskuak murriztuko ditugu, gure enpresak porrot egiteko aukera gutxituz. Gainera, gure negozio-eredua optimizatzea ahalbidetuko digu. Ez ditugu ekoizpen prozesuko ekintza guztiak guk egingo, ez baita errentagarria. Beste enpresa batzuekin itunak sinatuz eta kolaboratuz lortuko dugu kostuak murriztu eta ekoizpena optimizatzea.

Hainbat enpresa hornitzaileekin sinatuko ditugu itunak behar ditugun materialak eskuratzeko. Honako enpresa hauekin egingo ditugu aliantzak beharrezko materialak eskuratzeko:

- Egurra: Leroy merlin
- Lastaira: Colchonfactory
- Manta: El corte inglés
- Burkoa: El corte inglés
- Aire kutxa: Leroy merlin
- Ukipen pantaila: Beumons
- USB/ Hardware: Leroy merlin
- Argia: Leroy merlin
- Torlojuak: Leroy merlin
- Kableak: Ikbc

Bestalde, gure enpresa sozietate mugatu bat da. Beraz, gu izango gara enpresako zuzendari eta bazkideak. Halaber, bazkide garen heinean, bakoitzak rol ezberdin bat burutuko du. Hirune bezeroen eskarrietaz eta deiez arduratuko da aplikazioaz gain. Xabier webgunea egin eta berritzeaz eta giza-baliabideez arduratuko da. Adriana, bestalde, kapital ondasunez arduratuko da, eta berak kontrolatuko ditu aurrekontuak, irabaziak, gastuak eta langileen soldatak. Bukatzeko, Asier kanpo-harremanetaz arduratuko da, hots, gurekin kolaboratzen duten enprekin nahiz beste erakunde batzuekin komunikazioak mantentzeaz.